




COCA COLA FABRIKA
C MAILA

ERREKALDE HIRIBIDEA 55



Alvaro Libano, 1958

Deskribapena

Fabrika-planteamendu berezia, nabe paraleloen ohiko soluziotik urrun, asmo espresionista batez berezitako bolumenen bitartez, 50eko hamarkadako modernotasun berriaren bila. Bi mailaren artean kokatuta dago, eta atzealdeko atalak ibilgailuentzako sarbidea du, erdisotoaren kotan. Fatxada nagusitik bolumen handia nabarmentzen da, markaren iragarki eta guztikoa, kubikoa, estalkian eta errezel-horma batez egin fatxadan inklinazio txikia duela. Atal horrek lehen solairu bat ere hartzen du. Erakusleihu handiak produkzio prozesuaren parte bat erakusten zuen, jardueraren beste osagai batzuk nabean zehar zabaltzen direla, erdisotoaren sestran, edo beheko oinaren hegalean. Biseretako eta sarrerako markesinako hegala joko nabarmentzen da, material, gainazal emokatu eta harri horma zatien ildo sinplearen barnean, beirazko hormatal handia duela salbuespen.

C mailaren berariatzko babes araubidea

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.